

12/23

irizpena

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko
Erakundeen arloko hainbat dekretu eta
agindu aldatzen dituen

Dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2023ko urriaren 6a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Irizpena 12/23

I.- AURREKARIAK

2023ko uztailaren 17an, Ekonomia eta Ogasun Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, “*Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen arloko hainbat dekretu eta agindu aldatzen dituen dekretu-proiektuari*” buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arauaren xedea da Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (aurrerantzean, BGAE) arloko honako dekretu hauek aldatzea:

- *87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena.*
- *92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko dena,*
- *eta 203/2015 Dekretua, urriaren 27koa, BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena.*

Hiru dekretu horiek aldatu direnez, aldi berean, honako bi agindu hauek ere aldatu behar dira:

- *Agindua, 2009ko apirilaren 29koa, Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuarena. Horren bidez, BGAEen hainbat jarduera egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dira.*
- *Agindua, 2016ko uztailaren 19koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, BGAEetako Bazkideen Fitxategi Orokorren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen.*

Dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaien Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia bidaltzeko eta zegokion Lan Batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera. 2023ko irailaren 11n eta 19an, Ekonomiaren Garapen Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Kontseiluaren Osoko Bilkurari urriaren 6an aurkezteko, eta gehiengoz onartu zen, Euskadiko CCOO emandako boto partikularrarekin.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat ditu. Azkeneko horrek bost artikulua, xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Azalpen-zatian azaltzen denez, BGAEen inbertsioen xede izan daitezkeen aktiboen arloan izandako bilakaeragatik, ezinbestekoa da 92/2007 Dekretuaren 11. artikulua idazkera egokitzea (artikulu horrek arautzen baitu zehatz-mehatz kontu hori). Horrela, aurrerantzean handiagoa izango da inbertitu daitezkeen aktiboen multzoa, eta, funtsean, inbertsio kolektiboko finantza-erakunde gehiagotan inbertitu ahal izango da, baita inbertsio kolektiboko erakunde itxietan ere. Horrez gain, indargabetu diren arau jakin batzuei egindako erreferentziak eguneratuko dira.

Bazkideen eta onuradunen informazioari dagokionez, BGAEek bazkideei bidali behar dieten informazioa zehazten da. Aldi berean, 92/2007 Dekretuan aipatzen da BGAEek inbertsio jasagarri eta arduratsuaren arloan (aurrerantzean, IJA) haien esku jarri behar duten informazioa. Era berean, BGAE

bakoitzaren inbertsio-printzipioen deklarazioak IJAiei buruzko politika jaso behar duela ezartzen da.

Zenbait alderdiri begira indarrean jarraitzen duen 87/1984 Dekretuari dagokionez, 12. artikulua aldaketarekin bat etorriz, 8. artikuluan gizarte-aurreikuspeneko planaren eta hornidura teknikoaren kostua zehazteko aplikatutako formulak aldatzea aurreikusten da.

Era berean, 92/2007 Dekretuaren 9. artikulua idazkera egokitu da, hornidura teknikoaren finantzaketari buruzkoa, finantzaketa-planak eta berroreka-planak argi eta garbi bereizteko; tresna horiek, azken helburua partekatzen badute ere, egitatezko kasu desberdinei erantzuten diete. Eta 14. artikulua gehitu da, gizarte-aurreikuspeneko planen kategoriak zehazten dituen, plan bakoitzaren inbertsio-orientazioaren arabera.

BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuari dagokionez, zioen azalpenean gogorarazten da lehentasunezko BGAEak ez zirela erregelamendu bidez garatu hasieran (5/2012 Legeak berak gerora erregelamendu bidez garatzeko utzi zituen); beraz, erregelamendua aldatu behar da lehentasunezko BGAEen erregulazioa osatu eta zehazteko. Arlo horretako erregelamendu-erregulazioa justifikatuta dago, alde batetik, berariazko lege-gaikuntza dagoelako 5/2012 Legearen arauak garatzera eta aplikatzera bideratutako alderdi beharrezko guztiak erregelamendu bidez arautzeko, eta, bestetik, lehentasunezko BGAEei bultzada eman nahi zaielako, erakunde egokiak direlako enpleguaren eremuan borondatezko gizarte-aurreikuspena bideratzeko, hau da, gizarte-aurreikuspenaren bigarren zutabea deritzona bideratzeko.

Era berean, BGAE guztiei dagokionez, 5/2012 Legearen Erregelamenduaren aldaketa baliatuko da zehazteko zein izango den araubidea bazkideek gobernu-organoetan, bahituen betearazpenean eta lotutako eragiketetan parte hartzeko eta ordezkapena izateko.

Halaber, 203/2015 Dekretuan Bazkideen Fitxategi Orokorrak jaso beharreko datuak aldatu dira, gure autonomia-erkidegoko gizarte-aurreikuspenaren errealitatea ezagutzeko behar den informazioa izateko. Alderdi hori funtsezkoa da arlo horretako politikak garatzeko, eta BGAEek emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua aztertu behar dutela ezartzen da.

Azkenik, dekretuetan egindako aldaketa batzuek, halaber, bi garapen-agindutan aldaketak egitea dakarte. Aldaketa horiek laugarren eta bosgarren artikuluetan jaso dira.

Azalpen-zatia:

- **Lehenengo artikulua** BGAEei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 20ko **87/1984 Dekretuaren bi artikulua aldatzen ditu**. Zehazki, 12. artikulua, idazketa berria duena, eta 16. artikuluaren 1.1 idatz-zatia, idazketa berria duena.
- **Bigarren artikulua** BGAEen jardura jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko **92/2007 Dekretuaren zenbait artikulua aldatzen ditu**. Zehazki:

Lehenengo puntuak 4. artikulua aldatzen du, *bazkide osoen eta onuradunen informazioa eta defentsa*.

Bigarren puntuak beste bi tarteki sartzen ditu *inbertsio-printzipioen adierazpena* arautzen duen 5. artikuluaren 2. paragrafoan.

Hirugarren puntuak 5. idatz-zatia gehitzen dio 8. artikuluari, *zuzkidura teknikoak*. Hala, lehen 5.

atala zena aurrerantzean 6. atala izango da.

Laugarren puntuak idazketa berria ematen dio 9. artikuluari, zuzkidura teknikoaren finantzaketa arautzen duenari.

Bosgarren puntuak 11. artikulua aldatzen du, inbertitzeko jarraibideei buruzkoa, eta edukia honela berregituratzen du: 11. artikulua, 11 bis artikulua, 11 ter artikulua, 11 quater artikulua, 11 quinquies artikulua, 11 sexies artikulua, 11 septies artikulua eta 11 octies artikulua.

11. artikulua. Aktibo egokietan inbertitzeko printzipioak

11 bis artikulua. Inplikazio-politika

11 ter artikulua. Inbertsiorako aktibo egokiak

11 quater artikulua. Inbertsio kolektiboko erakundeak

11 quinquies artikulua. Inbertsioak dibertsifikatzeko irizpideak

11 sexies artikulua. Aktibo egokien balorazioa

11 septies artikulua. Bestelako aktibo egokiak

11 octies artikulua. Aktibo egokien araubidea egokitzea

Seigarren puntuak 14. artikulua sartzen du, gizarte-aurreikuspeneko planen inbertsio-orientazioa arautzen duena.

- **Hirugarren artikulua** BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko **203/2015 Dekretuaren zenbait artikulua aldatzen ditu.**

Lehenengo puntuak idazketa berria ematen dio 13. artikuluari, gobernu-batzarra; hala, 13. artikulua, gobernu-organoetan parte hartzea eta ordezkatzea izatera igaro da. Aipatzen da gobernu-organotzat hartuko direla: batzar orokorra, gobernu-batzordea eta jarraipen-batzordea, hala badagokio.

Bigarren puntuak idazketa berria ematen dio 32. artikuluari, mendekotasuna.

Hirugarren puntuak tarteki bat gehitzen dio 38. artikulua 1. paragrafoari, eskubideen enbargaezintasuna.

Laugarren puntuak 68 bis artikulua gehitzen du, lotutako eragiketarako.

Bosgarren puntuak idazketa berria ematen dio 91. artikuluari, Bazkideen Fitxategi Orokorra.

Seigarren puntuak d) letra gehitzen dio 104. artikulua 2. atalari, egitate inskribagarriak.

Zazpigarren puntuak VI. Titulua gehitzen du: "VI. TITULUA.- LEHENTASUNEZKO BGAEak" (122. artikulutik 131. artikulura bitarte).

122. artikulua. Definizioak

123. artikulua. Lehentasunezko BGAEak eratzea

124. artikulua. Lehenasunezko kalifikazioa

125. artikulua. Lehenasunezko kalifikazioa eskuratzea eta galtzea

126. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko lehenasunezko planak

127. artikulua. BGAEetako eta gizarte-aurreikuspeneko lehenasunezko planetako prestazioak

128. artikulua. Diskriminaziorik ezaren printzipioa

129. artikulua. Jarraipen-batzordea

130. artikulua. Jarraipen-batzordeak erabakiak hartzea

131. artikulua. Lehenasunezko planetako bazkideei informazioa ematea

- **Laugarren artikulua** Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren **2009ko apirilaren 29ko Agindua aldatzen du, eta idazketa berria ematen dio**. Agindu horren bidez, BGAEen hainbat jarduera egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dira.

I. KAPITULUA: BGAE-EN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. artikulua.- Xedea.

2. artikulua.- Eskubideak eta betebeharrak BGAEen jarduera ezberdinetan.

3. artikulua.- Eskubideak eta betebeharrak BGAE baten aurreikuspen-plan ezberdinen artean.

II. KAPITULUA: LAN-AURREIKUSPENEN PLANETAN ERRENTA FINKOA BALORATZEKO ARAU ESPEZIFIKOAK

4. artikulua.- Balorazio-irizpideak eta aplikatu beharreko eremua.

5. artikulua.- Amortizatutako kostuan baloratutako errenta finkoko aktiboak.

6. artikulua.- Jardunbidea mugatzea.

III. KAPITULUA: EGITURATUTAKO FINANTZA-AKTIBOAK ETA FINANTZA-BITARTEKO ERATORRIAK

7. artikulua.- Erabilera-kontrolak.

8. artikulua.- Egituratutako finantza-aktiboak. Kontzeptua.

9. artikulua.- Egituratutako finantza-aktibo negoziagarrien betekizunak araututako merkatuetan edo negozioazio-sistema aldeaniztunetan.

10. artikulua.- Egituratutako finantza-aktibo negoziatzeko betekizunak araututako merkatuetan edo negozioazio-sistema aldeaniztunetan.

11. artikulua.- Finantza-bitarteko eratorriak, estaldura helburua.

12. artikulua.- Inbertsioaren helburua.

13. artikulua.- Finantza-bitarteko eratorrien merkatu antolatua.

14. artikulua.- Kontrako alderdien arriskua.

15. artikulua.- Behar besteko kaudimena.

IV. KAPITULUA: NEGOZIAGARRITASUNA, LIKIDEZIA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

16. artikulua.- Negoziagarritasuna.

17. artikulua.- Likidezia-koefizientea.

18. artikulua.- Gordailuak kreditu-entitateetan.

19. artikulua.- Administrazio Publikoen edo antzekoen baloreak. (indargabetua)

20. artikulua.- Inbertsio kolektiboko erakundeak eta arrisku kapitaleko sozietate edo fondoak.

21. artikulua.- Indizea errepikatzea, erreproduzitzea edo erreferentziatza hartzea.

V. KAPITULUA: ERROTazio-RATIOA ETA BITARTEKARITZA-GASTUAK BALORE HIGIGARRIEN ZORROAN

22. artikulua.- Errotazio-ratioa.

23. artikulua.- Bitartekaritza-gastuak balore higigarriak salerosteagatik.

VI. KAPITULUA: ONDASUN HIGIEZINAK ETA HIGIEZINEN GAINEKO ESKUBIDE ERREALAK

24. artikulua.- Ezaugarriak.

VII. KAPITULUA: PUBLIZITATE-JARDUNA

25. artikulua.- Publizitate-kanpainen kostua.

26. artikulua.- Urteko tasa baliokidea kalkulatzea publizitate-kanpainetan. (indargabetua)

27. artikulua.- Informazio publikoa aurreikuspen-planen gainean.

AZKEN XEDAPENA Indarrean jartzea

Bosgarren artikulua Ogasun eta Finantzetako sailburuaren **2016ko uztailaren 19ko Aginduko bi artikulua aldatzen ditu**. Agindu horren bidez, *BGA* Etako Bazkideen Fitxategi Orokorren antolaketa eta funtzionamendua arautzen da.

Lehenengo puntuak idazketa berria ematen dio 3. artikuluari, *etengabeko datu-elikatzea*.

Bigarren puntuak 5. artikulua 3. atala aldatzen du, eta epea hiru hilabetetik hilabetera murrizten du.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA, prestazioak aseguratzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko planei buruzkoa.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA, izapidetzen ari diren espedientei buruzkoa.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA, estatutuak eta erregelamenduak egokitzeari buruzkoa.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA, ebazpen bat indargabetzen duena.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA, araua indarrean jartzeari buruzkoa.

III.- GOGOETA OROKORRAK

III.1. ARAUAREN XEDEA ETA ASMOA

Kontsultarako bidali diguten dekretu-proiektuaren xedea da, azaldu dugun bezala, otsailaren 20ko 87/1984, maiatzaren 29ko 92/2007 eta urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak aldatzea. Hiru dekretu horietan egindako aldaketek, era berean, bi agindu aldatzea dakarte: 2009ko apirilaren 29koa, Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuarena, eta 2016ko uztailaren 19koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena.

Otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua BGAEen urriaren 27ko 25/1983 Legea garatzeko eman zen, baita 92/2007 Dekretua ere, zeinak 87/1984 Dekretuaren eduki batzuk aldatu baitzituen.

Indarrean dagoen BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legeak 25/83 Legea indargabetu zuen, eta azken xedapenetako lehenengoan berariaz jaso zen Gobernuari lege hori erregelamendu bidez garatzeko ahalmena ematen zitzaiola. Laugarren xedapen iragankorrean xedatu zen lege horren erregelamendu-xedapenak indarrean jarri arte, indarrean jarraituko zutela 25/1983 Legea garatzeko erregelamendu-xedapenek eta gainerako arauak, betiere bateraezinak ez baziren.

Azken xedapenetako lehenengoaren bidez eman zen, hain zuzen ere, urriaren 27ko 203/2015 Dekretua. Haren xedapen indargabetzaileak, zenbait salbuespenekin, eutsi egin zien erregelamendu hori indarrean jarri arte indarrean zeuden erregelamendu-xedapenei. Aztertzen ari garen dekretu-proiektuak xedapen horietako batzuk aldatu ditu.

Dekretu-proiektu hau indarrean dagoen 5/2012 Legearen azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren babesean eman da. Xedapen horretan adierazten denez, Eusko Jaurlaritzak lege hori garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak emango ditu, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek, oro har, legeak garatzeko erregelamenduak emateko eskumena ematen dio Jaurlaritzari.

Dekretu-proiektua Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2023ko otsailaren 14an onartutako 2023rako Urteko Araugintza Planean aurreikusita dago, zeina EHAAn ezagutarazi zen Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 21eko 31/2023 Ebazpenaren bidez. Ebazpen horren bidez, 2023. urterako araugintza-plana onartzeko erabakia argitaratzea xedatu zen; hori guztia 39/2015 Legearen 132. artikuluekin eta 6/2022 Legearen 8. artikuluekin bat etorritik.

III.2. ESKUMEN-ESPARRUA

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.23 artikulua eskumen eskusiboa ematen dio EAERI Gizarte Segurantzaz kanpoko mutualitateen arloan. Era berean, 11.2.a) artikuluan xedatzen denez, EAERIren eskumena da kreditu, banku eta aseguruaren antolamenduaren arloko oinarriak legez garatzea eta betearaztea bere lurraldean. Aipatzekoa da, halaber, Estatutuaren 10.25 artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoak "Euskal Autonomia Erkidegoko jardura ekonomikoaren sustapen, garapen eta

plangintzaren arloan, ekonomiaren ordenantza orokorrarekin bat etorriz” eskumen eskusiboa duela ezartzen baitu.

Hala ere, dekretu-proiektuaren txosten juridikoan aipatzen den bezala, Konstituzio Auzitegiaren zenbait epaik zehaztu egin dute autonomia-erkidegoek gizarte-aurreikuspeneko mutualismoaren arloan duten eskusibotasuna: hala, epai horietako lehenengoak, maiatzaren 11ko 86/1989 KAEak, baieztatu zuen Konstituzioaren (EK) 149.1.11 artikulua (“kreditu, banku eta aseguruak antolatzeko oinarri” buruzkoa) estatuari ematen dion eskumena aplikatzekoa dela, betiere erakunde horiek aseguru-jarduera gauzatzen badute; aldiz, autonomia-erkidegoen eskumen eskusiboa antolaketa- eta funtzio-berezitasunetan oinarritzen da. Era berean, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 23ko 173/2005 epaiak zehazten du Estatuak EKren 149.1.11 artikulua arabera ezarritako oinarriek alderdi operatiboetan eragiten dutela. 86/1989 KAEak adierazi bezala, oinarri horiek gizarte-aurreikuspeneko mutualismoaren berezitasuna errespetatu behar dute, eta ezin izango diote eragin mutualitate horien araubide juridiko estruktural eta funtzionalari, autonomia-erkidegoen eskumena baita.

Hori dela eta, gai horri dagokionez, halaber, Estatutuaren 11.2 a) artikulua da aplikatzekoa (“a) kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzea”), Estatuaren oinarrizko legeria EAeko lurraldean garatzeari eta betearazteari dagokionez.

Bestalde, 97/2014 KAEak, 5/2012 Legearen hainbat manuren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioan emandakoak, Konstituzio Auzitegiak arlo horretako eskumen-banaketari buruz izan duen doktrina jasotzen du, besteak beste, 86/1989, 35/1992, 220/1992, 173/2005 eta 215/2012 Epaietan. Halaber, berretsi egiten du BGAEek aseguru-jarduera zein aseguru-izaerarik gabeko jarduera egin dezaketela, eta lehenengoari soilik aplikatu ahal zaiola aseguruaren arloko estatuko oinarrizko araudia. Gainera, gizarte-aurreikuspeneko planak pentsio-planen esparruan sartzen ditu, bi planek helburu berbera baitute, eta, ondorioz, eskumenean ikuspegitik, merkataritza-esparruan kokatzen ditu. Estatuak esparru horri buruzko legeria ezartzeko eskumena du, EKren 149.1.16 artikulua arabera.

Azkenik, EKren 149.1 13 artikulua, era berean, eskumen eskusiboa ematen dio Estatuari jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak ezartzeko eta koordinatzeko; hala, nolabait findu egiten du Estatutuaren 10.25 artikuluko eskumen eskusiboa.

III.3. ARAU-ESPARRUA

Dekretu-proiektuaren txosten juridikoan aipatzen den bezala, 5/2012 Legeari eta arautzen duen gaiari buruz, orain aldatu den garapen-araudiaz gain, hainbat dekretu, agindu eta ebazpen eman dira, besteak beste:

- 86/2010 Dekretua, martxoaren 16koa, aseguru-erakundearen Kontabilitate Plana EAeko BGAEen bereizgarrietara egokitzea onesteko.
- 252/2006 Dekretua, abenduaren 12koa; horren bitartez, “BGAEak baliatuta bideraturiko aurreikuspen sozialeko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak” arautzen dira.
- 2019ko abenduaren 26ko Agindua, Ogasun eta Ekonomiako sailburuarena, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko BGAE bereizi gabeko arautzekoa (BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuan daude araututa erakunde horiek).

- 2013ko maiatzaren 21eko Agindua, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, hainbat aktibo BGAEek inbertsioak egiteko aktibo egokitzat hartzeari buruzkoa.
- 2008ko abenduaren 3ko Agindua, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, "BGAEetako Gobernu Batzordeetako kideek aurreikuspen sozialaren arloan duten prestakuntzari" buruzkoa.

Europa mailan, arau-esparrua honako hauek osatzen dute: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko IORP II 2016/2341 Zuzentaraua, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzkoa. Zuzentarau hori 3/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez (3/2020 Errege Lege Dekretuak pentsio-planen eta -funtsen legea aldatzen du) eta 738/2020 Errege Dekretuaren bidez txertatu da Espainiako ordenamendu juridikoan (dekretu horrek 3/2020 Errege Lege Dekretua garatzen du eta pentsio-plan eta -funtsen erregelamendua aldatzen du).

Era berean, kontuan hartu behar dira European Insurance and Occupational Pensions Authority (EIOPA) erakundeak gobernantza-sistemari buruz onartutako jarraibideak.

III.4. PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZ

Aurretizko arazoa

Gizarte Segurantzaren konstituzio-ereduak hiru oinarri ditu; bigarrena lanbide-oinarrikoa da, eta negozioazio kolektiboaren bidez eraikitzen da.

Kontseilu honen iritziz, bigarren oinarri horrek hartzen duen eremua argi eta garbi mugatu behar da, eta pentsioen sistema publikoa osatu behar du, ez ordeztu, aurreikuspen indibidualetik edo hirugarren oinarritik bereizita.

Bigarren oinarri hori garatzeko, gizarte-eragileen inplikazioa behar izan da eta behar da. Horren aldeko apustua aspalditik nabaria da EAEn eta asko garatu da, legez esleitutako eskumenen barruan, Estatuan eredu bihurtuz.

Funts- eta enplegu-planei buruzko estatuko lege berriaren bidez, oinarri horren garapena sustatu nahi da; ildo beretik, kontsultarako bidali diguten dekretu-proiektuak EAeko BGAEen araudia errealitate berrietara egokitu nahi du.

Hori esanda eta bidalitako arau-proiektuaren edukia aztertuta, Kontseilu honek ohar batzuk egin nahi ditu, eta gure iritziz ebatzi gabe dauden eta, ustez, garrantzitsuak diren gai batzuk azaldu.

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu, nahiz eta aldaketak egiteko erabilitako teknika juridikoa zuzena izan, dekretu-proiektuaren edukia luzea, teknikoa eta konplexua dela, eta zenbait alderdi ez direla oso argiak.

Bigarrenik, aurretik esandakoa eta gaiari lotuta argitaratu diren arau guztiak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen dugu testu batekin bat idaztea.

Hirugarrenik, jasota utzi nahi dugu azaldu zaigun aukera aprobetxatu litekeela, eta dagokion erregulazio espezifikoan eguneratu edo zehaztu beharko liratekeen kontzeptuak aldatu.

Gure ustez, enpresa-jokabide arduratsuaren kodeak kontuan hartzean, agian Nazioarteko Esparru Akordioak gehitu litezke. Jokabide-kode batek ez bezala, esparru horrek emaitza sendoagoak lortzeko

aukera ematen du, sindikatuekin itundutako helburuak ezartzen baititu. Era berean, komenigarria litzateke multistakeholder eta/edo nazioarteko beste akordio edo konpromiso batzuk kontuan hartzeari buruzko erreferentziak sartzea.

Herrialdearen arriskua neurtzeari dagokionez, ikuspegi asko aintzat hartuta baloratu beharko litzatekeela uste dugu; adibidez, fiskala (BEPS-ELGA), laborala (NLE, NKSren Eskubideen Indize Globala), ingurumenekoa (Parisko Hitzarmenaren helburuen atxikipena eta betetze-maila), eta abar.

Bigarren artikuluari dagokionez. BGAEen jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua aldatzea

Bosgarren puntuari buruz, zeinak aldatu eta berregituratu egiten baitu 11. artikulua, inbertitzeko jarraibideak

Inbertsiorako aktibo egokiak eta dibertsifikazio-irizpideak

Uste dugu inbertsioen kudeaketak bazkideen eta onuradunen interesari soilik erantzun behar diola. Horretarako, dekretu-proiektuak xehetasunez eta kontu handiz arautzen du inbertsio-araubidea.

Hala ere, sor daitezkeen funtsen kopurua eta optimizazioa kontuan hartuta, merkatu arautuan ez dauden enpresen rol murrizta birplanteatu beharko litzatekeela uste dugu, balizko inbertsio-aktibo bihurtzeko.

Zehazki, enpresa horiek jaulki ditzaketen baloreak eta finantza-baliabideak ez daude sartuta BGAEak inbertitzera behartuta dauden aktiboen % 70ean, eta, gainera, dagokien BGAEaren aktiboaren % 2an dute balizko inbertsioa.

EAEen ETE asko eta asko daude; enpresa horietan enpleguaren ia % 70a dago, eta, beraz, ETEetako langileak dira, funtsean, BGAEetako protagonistak maila guztietan (eraketa, bazkideak, onuradunak, finantzaketa...). Egia esan, ez dugu ulertzen ETEei BGAEen inbertsio-zorroan parte hartzeko ezarri zaizkien mugak, are gehiago dekretuak berak inbertsio horietarako arreta gehigarriak ezartzen dituela kontuan hartuta, guztiz justifikatuta baitaude eta bat gatoz horiekin.

ETEei inbertsio horiek egitea erraztea, gainera, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren arloan esparru propioa mantentzeko herrialde-itun baten parte izango litzateke. Itun horretan, gainera, ETEen ekoizpen-sarearen aldeko apustua eta inplikazioa sartuko lirateke, zeina guztion interesekoa den.

Hirugarren artikuluari dagokionez. BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretua aldatzea.

Zazpigarren puntuari buruz, VI. TITULUA.- LEHENTASUNEZKO BGAEak (122. artikulutik 131. artikulura bitarte) jasotzen baitu.

Prestazioak ordaintzeko modua (127. artikulua)

Indarrean dagoen araudiak ahalbidetzen du dagokion estatuko sektore-eremua baino eremu azpiagoko hitzarmen kolektiboek EAEko aurreikuspen-baliabide propioei (lehentasunezko BGAEak) atxikitzeko aukera izatea, estatuko hitzarmeneko enplegu-plan sinplifikatura atxiki beharrean.

Bestela esanda, gizarte-eragileek hala erabakitzen badute, EAEko bigarren oinarria borondatezko gizarte-aurreikuspenaren esparru propioan garatzen jarraituko da, nahiz eta enplegu-plana estatuko hitzarmen batean finkatu (nahitaez eratu beharra eta edukia).

Ondorioz, erabakigarria da BGAEen araudia erakargarria izatea, gizarte-eragileek erabakia hartzeko. Horretarako, prestazioak kapital edo errenta gisa ordaintzeko araubidea funtsezko elementua da. Dekretu-proiektuak errenta gisa ordaintzeko modua aukeratzen du argi eta garbi, eta asko murrizten du kapital gisa ordaintzeko aukera.

Gure ustez, egoera hori bidegabea izan daiteke urte askotako karrera profesionalak dituzten aurreztaileentzat; izan ere, soldataren zati bat lehentasunezko BGAE batean inbertitu badute, hala nola ELKARKIDETZAn, ezin dira arauak aldatu ekarpenak urte askotan egin ondoren.

Era berean, uste dugu muga horrek ez duela BGAEen alde egiteko pizgarririk emango estatuko enplegu-planen ordeztu; izan ere, plan horiek langile pentsiodunari aukera ematen diote askatasun handiagoz erabakitzeko nola kobratu nahi dituen etorkizuneko prestazioak. Beraz, aipatutako mugak kentzea eta kapital edo errenta gisa kobratzeko aukera libreki aukeratu ahal izatea eskatzen dugu, edo, hala badagokio, muga horiek ahalik eta txikienak izatea, aurreikuspen-planak lehentasunezkoa izaten jarraitzeko.

Nolanahi ere, bateragarri egin daiteke errentaren eta kapitalaren artean aukeratzeko askatasun-araubide bat (BGAEek erakargarritasuna gal ez dezaten EAEtik kanpoko beste tresna batzuen aldean), langileek/pentsiodunek errenta gisa ordaintzea aukera dezaten sustatuz. Dagokion zerga-pizgarrien araubidearen bidez ezar daiteke.

Jakina, irizpena ematen ari garen dekretuaren esparrua gainditzen duten erabakiak dira, foru-ogasunei dagozkienak; baina erabaki (konpromiso) horiek aipatutako herrialde-itunaren ezinbesteko zati dira, borondatezko gizarte-aurreikuspenaren alorreko eredu propio baten alde.

Azken batean, erakunde publikoetatik sustatzen ari den BGAEen bultzada arrakastatsua izanez gero, kudeatzen dituzten funtsak bolumen handia eskuratuko dute. Era berean, eta bereziki arrazoi horregatik, uste dugu beharrezkoa dela beharrezko neurri guztiak aktibatzea funts horiek EAEko baliabideetan egon daitezen. Horretarako, inguruabarretara egokitutako arauak eta zergak diseinatu behar dira, baliabide horiek sustatu eta bultzatzeko.

Diskriminaziorik ezaren printzipioa (128. artikulua)

BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legeak, 14. artikuluan, gutxienez urtebeteko antzintasuna ezartzen du erakundeko bazkide oso izateko. Epe hori estatuko araudian ezarrita zegoena baino laburragoa da (bi urte). Hala ere, pentsio-plan eta -funtzen erregelamenduaren azken aldaketak eta pentsio-plan eta -funtzen legearen aldaketak hilabeteko epea ezartzen dute. Beraz, bazkide oso izateko gehieneko epea murriztu beharko litzateke, Euskadiko langileei eragiten dieten enpleguko pentsio-planek eta BGAEek antzeko epea izateko.

Laugarren artikuluari dagokionez, zeinak Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2009ko apirilaren 29ko Agindua aldatzen duen eta idazketa berria ematen dion. Agindu horren bidez, BGAEen hainbat jarduera egitea arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren zenbait manu garatzen dira.

Interesgarria izan liteke paradisu fiskal bat zer den hobeto definitzea; interesgarria litzateke, halaber, babesleku edo gordeleku fiskal gisa definitzea, eta zer zerrenda erabili behar den zehaztea. *Tax Justice Network* erakundeak 2020ko txostenean adierazi zuenez, Erresuma Batuak, Herbehereek, Luxenburgok eta Suitzak dute munduko urteko galera fiskalen erdia: 199.000 milioi euro. Herrialde

horietan, batez ere Luxenburgon, helbideratutako inbertsio-funtsak kenduz gero, egoera dezente aldatzen da. Paradisu fiskalak zer diren argitu behar da eta izena aztertu, konnotazio negatiboagoa emateko. Estatuko araudian, termino horren ordezkari juridikzio ez-kooperatiboak erabili da, zerga-ondorioetarako kooperatzen ez duten herrialde eta lurraldeen EBko zerrendaren arabera.

Egituratutako finantza-aktibo desegokiaren kontzeptuaren aldaketan adierazten da egituratutako aktiboen betekizunak AA kreditu-kalifikazioa izatearen mende daudela (S&P aipatuta). Hori kontraesanean egon daiteke 11. artikuluan aldatutakoarekin; izan ere, adierazten da aktiboen kaudimena ebaluatzeko ez dela, modu eskusiboan eta automatikoan, agentziek emandako kreditu-kalifikazioen mende egongo. Hori 15. artikuluan ezartzen da.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

BIGARREN ARTIKULUA BGAEen jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua aldatzea

Lehenengo puntua: 4. artikulua aldatzea. Bazkide osoen eta onuradunen informazioa eta defentsa.

- b) idatz-zatian, dekretu-proiektuak 2. atala gehitzen du. Artikulu horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:
 - ✓ Gure ustez, b) idatz-zatiko 5. atalean argitu beharko litzateke dekretu-proiektuan aipatzen diren kontrako gorabeherak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088 (EB) Erregelamendutik datozela (erregelamendu hori finantza-zerbitzuen sektoreko jasagarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzkoa da).
 - ✓ Azken paragrafoak honako hau dio: *“Milioi bat eurotik beherako ondare-bolumena duten BGAEak salbuetsita egongo dira inbertsio jasagarri eta arduratsuen (IJA) azterketa egiteko betebeharratik, baina atal honetan ezarritako irizpideak jarraitu ahal izango dituzte hala erabakitzen badute”*.
- Ohartarazi behar da edukiari buruzko gai bat arautzen ari dela, baina gai hori dagokion lekuan arautu beharko litzatekeela, eta ez puntu horretan, bazkideen eta onuradunen informazioa eta defentsa arautzen baititu.
- Hori esanda, adierazi behar dugu ez zaigula egokia iruditzen inbertsio jasagarri eta arduratsuari buruzko analisia borondatezkoa izatea baldin eta BGAEaren bolumena milioi bat eurotik beherakoa bada. Nolanahi ere, proportzionaltasun-printzipioaren alde egin beharko litzateke, eta funtsezkoena jasoko duen informazio-eredu laburtu bat eskatu. Gainera, baldintza hori noiz bete behar den zehaztu gabe dago.
- 2. atal berri bat sartu denez, jatorrizkoa 3. atala izatera igaro da, eta orain 3.b) puntuan aipatzen den moduan gelditu da: *“BGAEak, zehaztutako ekarpen-sistemaren aurreikuspen-planerarako, gutxienez sei hilean behin, erretiro-pentsioaren zenbatespen bat igorriko dio bazkide eta onuradun bakoitzari. Zenbatespen hori eskubide ekonomiko hori hamabost urtez hileko finantza-pentsio iraunkor bihurtzearen ondorio izango litzateke, interes-tasaren hipotesia kontuan hartu gabe. Zenbatespen hori egiteko, informazioa bidaltzeko unean dauden eskubide ekonomikoen zenbatekoa erabiliko da, eta erretiroa une horretan hartzen dela joko da”*.

Gure ustez, Gizarte Segurantzatik jasoko lukeen pentsio publikoaren itxaropena ezagututa eta

erretiroaren ondoren izan ditzakeen finantza-premiak aurreikusita, bazkideak zer zenbateko aurreztu behar duen jakin behar du, bai enplegu-emailearen ekarpenen bidez, bai ekarpen propioen bidez. Halaber, funtsezkoa da ematen zaion informazioa osatu nahi denarekin konparatzeko eta homogeneoa izateko moduan ematea. Ondorioz, eskubide ekonomikoak interes-tasa kontuan hartu gabe 15 urterako errenta iraunkor bihurtzea neurri praktikoa da, baina benetan inflazioan soilik oinarritzen da; zentzua izan dezake erretirotik hurbil daudenentzat, adibidez 55 edo 60 urtetik gorako bazkideentzat.

Hala ere, gure ustez, datu hori oraindik metatze-aldian eta eskubide ekonomikoak eratzeko fasean dauden gazteei edo tarteko adinean daudenei emateak muga asko ditu, ez da oso erabilgarria eta ez du baliorik izango.

Gure proposamena da adinaren arabera muga edo kalkulu-esparruren bat (ekarpenen etorkizunarena) ezartzea, edo eskubide ekonomikoen kopuru jakin bat gainditzen duten bazkideetara mugatzea.

Bosgarren puntua, 11. artikulua aldatzea eta berregituratzea.

Artikulu horri dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

- Gogoeta orokorren ildotik eta ETEei emandako eginkizunaren arabera, **11 quinquies artikuluan (Inbertsioak dibertsifikatzeko irizpideak)** proposatzen da:
 - **11 quinquies 1.a) artikuluan**, 11 ter artikuluko a), c), d), e) eta f) letrei ñ) letra **gehitzea**. Testua honela geratuko da:

a) BGAEaren aktiboaren % 70, gutxienez, 11 ter artikuluko a), c), d), e), f) eta ñ) letretan aipatzen diren aktiboetan eta merkatu antolatuetan negoziatutako bitarteko finantzario eratorrietan inbertituko da.
 - **11 quinquies 1.c) artikulua** honako hau dio: *“BGAEek ezingo dute aktiboaren % 2 baino gehiago inbertitu enpresa batek jaulkitako eta merkatu arautuetan edo negoziazio-sistema aldeaniztunetan kotizatzeke onartu ez diren balore eta finantza-baliabideetan...”*; % 2ko muga **gorantz berrikustea**, ahal den neurrian.
- **11 quinquies.1.g.2. artikulua**ren bigarren paragrafoan, existitzen ez zen eta ulertzen ez den % 20ko muga sartu da: *“BGAEaren aktiboaren % 20 inbertsio kolektiboko hainbat erakundetan, inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituen erakunde batek edo talde bereko hainbat erakundek kudeatzen dituztenean”*.

Gure ustez, ratio hori Dekretuaren azalpen-zatian azaldu beharko litzateke.

- **11 sexies artikulua**ren (Aktibo egokien balorazioa) a) idatz-zatian, honako hau aipatzen da:

“Aktibo egokiak aintzat hartuko dira honako irizpide hauen arabera:

a) Balore eta finantza-baliabide negoziagarriak, errenta finkokoak zein aldakorrekokoak izan, diru bihurtzeko balorearen arabera baloratuko dira, honako honen arabera”

“Negoziagarriak” ezabatzea proposatzen dugu, gero negoziagarriak eta negoziatzekoak aipatzen

direlako.

Bigarren xedapen iragankorra. Estatutuak eta erregelamenduak egokitzea

BGAEEK sei hilabete izango dituzte, dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, beren estatutuak eta aurreikuspen-planen erregelamenduak egokitzeko.

Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira administrazio-gastuen gehieneko ehunekoak. Dekretua indarrean jartzen denetik 12 hilabeteko epea ere eman beharko litzatekeela uste dugu, estatutuak eta erregelamenduak egokitzeko epearekin bat etor daitezten. Horrez gain, aplikazioa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera mantenduko balitz eta dekretua 2024an onartuko balitz, oso kaltegarria izan liteke BGAEntzat; kasu horretan, BGAEn kudeaketa oso konplexua izango litzateke.

Aurreko bi paragrafoetan eskatutako epearekin bat etorriz, 12 hilabeteko egokitzapen-epea ere eskatzen da, 92/2007 Dekretuaren 11. artikulurako zirriborroan proposatutako inbertsio-arau berrietara egokitzeko.

Adibide gisa eta analogiaz, uztailaren 18ko 668/2023 Errege Dekretuak, pentsio-plan eta -funtzen erregelamendua aldatzen duenak, lehenengo eta hirugarren xedapen gehigarrietan 12 hilabeteko epea ezartzen du, erregelamendua indarrean jartzen denetik, pentsio-planen zehaztapenak egokitzeko, pentsio-funtzen inbertsio-politikaren printzipioak egokitzeko, pentsio-funtzen funtzionamendu-arauak egokitzeko eta pentsio-plan eta -funtzen arloko betebeharrak berriak egokitzeko. Kasu horietan guztietan, Errege Dekretu berriak 12 hilabeteko epea ematen du egokitzeko.

Horregatik guztiagatik, uste dugu epea laburregia dela, eta gutxienez 12 hilabetekoak izan beharko luketela araudi berrira egokitzeko epeak.

V.- ONDORIOA

EGABek egokitzat jotzen du *“Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen arloko hainbat dekretu eta agindu aldatzen dituen dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako gogoetak aintzat hartuta.

Bilbon, 2023ko urriaren 6an

O.E. Presidentea

Idazkari nagusia

Emilia M. Málaga Pérez

Olatz Jaureguizar Ugarte

ERANSKINA

EUSKADIKO CCOOK EMANDAKO BOTO PARTIKULARRA

CCOO bat dator Euskadiko EGABek emandako irizpenaren zati handi batekin, **Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko dekretu eta agindu batzuk aldatzen dituen Dekretu Proiektua dela-eta**. Hain zuzen ere, CCOOK erakunde horri ekarritako gogoeta batzuk ere jaso dira dekretu-proiektuan. Baina gure erakundea ez dago ados EGABeko kideen gehiengoak azkenean onartu duen irizpenean jasotako bi alderdirekin, eta uste du kaltegarriak izan daitezkeela guztion helburu nagusiari begira. Helburu hori da bultzada ematea enpleguko lehentasunezko BGAE-ei, egokienak direlako borondatezko gizarte-aurreikuspena bideratzeko gizarte-aurreikuspenaren bigarren zutabe deritzon horren esparruan.

Hauek dira CCOOK egokitzen ez dituen irizpenaren alderdiak:

- Prestazioak kapital eran jasotzeko ezartzen diren murrizketei buruzkoak; horiek **hirugarren artikuluan garatzen dira (BGAE-ei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren aldaketa)**. **Zazpigarren artikuluari buruzkoak; artikulua horrek VI. TITULUA gehitzen du, LEHENTASUNEZKO BGAE-AK izenekoa (122.-131. artikulua)**. **Prestazioak ordaintzeko modua (127. artikulua)**.
- Bigarren artikulua **(BGAE-en jarduera jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren aldaketa)** dela-eta irizpenean inbertsio arauari buruz jaso diren kritikak eta iradokizunak. **Bosgarren artikuluari buruzkoak; artikulua horrek aldatu eta berregituratu egiten du 11. artikulua (Inbertsio arauak)**.

EGABeko kideen gehiengoak onartutako irizpenak, ontzat ematen ez ditugun alderdi horietan, azpimarra jarri nahi dio ideia honi: BGAE-en funtsetatik, batez ere enpleguko lehentasunezko BGAE-en funtsetatik, zati handiago bat erabili behar dela EAEko enpresak finantzatzeko, batez ere ETEak, horrela EAEko ekonomiaren biziberritzea sustatu eta gizarte aurreikuspeneko esparru propioaren garapena erraztuko baita. Euskadiko CCOO ados dago asmo horrekin; izan ere, guk aspalditik aldarrikatzen dugu helburu hori, ikuspegi globalago batetik bada ere. Ez gaude ados, ordea, irizpenean horretarako proposatzen diren elementuekin: araua *“erakargarriago”* bihurtzea horrelako inbertsioetarako.

Jada 1993an, krisiak eraginda, **ELA, CCOO eta LAB sindikatuok baterako dokumentu bat egin genuen, “Berrindustrializazioa eta enplegua Euskadiren etorkizunaren oinarri”** izenekoa, eta bertan jaso ziren industria politika garatzeko proposamenak, iruzur fiskalaren kontrako neurriak, nahikotasun eta gehikortasun printzipioei jarraituz taxutu beharreko zerga politika desberdina, enpresak kudeatzeko ereduak aldatzeko neurriak eta beste batzuk. Horien artean BGAE-en funtsen erabilera ere aipatu genuen, honako hau esanez: **“Behar-beharrezkoa da BGAE-en funtsen aprobetxamendu hobea antolatzea EAEko ekonomia biziberritze aldera”**. Orduan, hemen azaldu beharrik ez dagoen arrazoiengatik, ezin izan zen akordio orokorrik lortu eta azkenik **erakundearteko akordioa egin zuten elkarrekin Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek. Bertan bide eman zitzaaien opor fiskal deitutakoei**.

Guk, Euskadiko CCOOK, lehen bezala akordio eta konpromiso orokorrak eskatzen ditugu orain, hartzen diren neurriei legitimazio soziala emango dietenak, ahalegin solidario eta partekatua ekarriko dutenak, **finantza erakundeen konpromisoa familia eta enpresek kreditua jaso dezaten, bestelako fiskalitatea, zerbitzu publikoei eusteko konpromisoa, apustu borobila eraginkorrakoak izan eta balio erantsi handiagoa sortuz lehitzeko, eta ez soldatak murriztuz, beste gauza batzuen artean, horrek**

kontsumoan eta horrenbestez ekonomiaren biziberritzean duen eragin negatiboagatik.

Baina irizpenean dauden proposamenek arauaren erakargarritasuna areagotu beste helbururik ez dute, eta, gure ustez, zalantzan jartzen dute enpleguko lehentasunezko BGAE-en eta enpleguko lehentasunik gabeko BGAE-en arteko bereizketa.

Zehazki, *hirugarren artikulua (BGAE-**ei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren aldaketa**), zazpigarren artikulua (VI. TITULUA **gehitzen duena, LEHENTASUNEZKO BGAE-AK izenekoa –122.-131. artikulua**–) eta prestazioak ordaintzeko modua (127. artikulua)* egindako **gogoeta orokorraz** ari gara. Ez gatoz bat irizpenarekin, gaitz irizten dionean *“dekretu-proiektuak errenta eran ordaintzearen alde egiteari, izugarri murriztuz kapital erako ordaintzen aukera”*. Hori dela-eta, berriro gogorazi behar dugu enpleguko gizarte-aurreikuspen osagarria bigarren zutabearen zutabearen txertatuta dagoela. Europako estatuetan asko garatu den tresna da, eta ia beti errenta eran garatu, hain zuzen ere. Hori horrela da helburu soziala duelako eta xedetzat duelako azken soldatara ahalik gehien hurbiltzen diren diru-sarrerak bermatzea, osagarri moduan eta inoiz ere ez ordezkotzat moduan, pertsonak lan jarduerari uzten dionean erretiroa hartuta edo lanean jarraitzea eragozten dion ezintasunagatik.

Ezerk ez du galarazten enpleguko lehentasunik gabeko BGAE mota garatzea. Hain zuzen ere Euskadin baditugu mota bateko eta besteko erakundeak. Baina horrekin batera, sindikatu honen ustez eta ikuspegi globaletik, irizpenean jasotako alegazioak eraginik gabe utziko luke lehentasunezkoen izan lezaketen edozein berezitasun. Euskadin bigarren zutabearen hedapena erreforma fiskal desiratu bezain iragarriaren mende utz dezakegu, hainbeste urte atzeratu den horren mende. Baina horrek beharrezkoa den araudi-egokitzapena ere ekarri behar luke berekin. Uste dugu horixe dela aurkeztutako dekretu-zirriborroaren helburua. Eta ez die enpleguko BGAE-**ei bakarrik** egiten erreferentzia, lehentasunezkoak izan edo ez. Irizpenerako aurkeztu zaigun arauak, izan ere, bigarren zutabe horri ez ezik hirugarrenari, banakako aurreikuspenari ere eragiten dion erregulazioa jasotzen du. Beraz, uste dugu arauak ezarritako bereizketa ez dagoela sobran, BGAE-en gaineko fiskalitatearen etorkizuneko erreforma horri begira.

Baieztapekin honekin ere ez gaude ados: *“Gure iritziz, egoera hau bidegabekoa izan daiteke urte askotako lanbide karrera duten aurreztaileentzat, euren soldataren zati bat ELKARKIDETZAn edo gisako lehentasunezko BGAE batean inbertitu dutenei ezin zaizkielako arauak aldatu urte luzeetako ekarpenen ondoren”*. Arauak jasotzen du ezen BGAEaren estatuetan hala ezarrita badago batzarrak erabakiko duela banaketaren proportzioa.

Hau ere ez dugu egokitzat jotzen: *“Era berean, uste dugu mugaketa horrek BGAE-en aukera egiteko pizgarriak kenduko dituela Estatu eremuko enplegu planen aldean, azken horiek langile-pentsiodunari askatasun handiagoa ematen diotelako etorkizuneko prestazioak nola kobratu nahi dituen erabakitzeko*.

Beraz, proposatzen dugu mugaketa horiek kentzea eta askatasuna ematea kapital eran edo errenta eran kobratuko den erabakitzeko; edo, kasua bada, aurreikuspen planak lehentasunezko kalifikazioari etsi ahal izateko ezinbestekoak diren mugak baino ez ezartzea”.

Ez ditugu errepikatuko lehenago azaldutako argudioak. Baina aukera hori egon badago enpleguko BGAE-etan, eta irizpenean jarri den araua enpleguko lehentasunezko BGAE-**ei buruz** ari da puntu honetan.

92/2007 Dekretuaren 11. artikulua (Inbertsio arauak) aldatzeari buruz adierazitakoa dela-eta, bat

egiten dugu asmoarekin, baina ez gara fidatzen irizpenean aldaketa horiei eta berregituraketari buruz proposatutakoaz. Betiere BGAE-en funtsak **segurtasunaren, errentagarritasunaren, kaudimenaren, likideziaren eta dibertsifikazioaren legezko printzipioen** arabera inbertitu behar dira, beste printzipio batzuen artean.

Arrazoi horiengatik, Euskadiko CCOOk EGABen irizpen honen aurkako botoa ematen du.